

Joxe Anton Arzeren poesia

JON KORTAZAR

1. POETIKA

Joxe Anton Arzek 1990. urtean argitaratu zuen bere poetika. **Enseiucarrean** aldizkarikoek galdetegi txikia bidali zieten, erantzun ziezaien, beste hainbat poeteri ere egin zieten moduan. Galdetegia esanguratsua zen, olerkarietara bere bideak azaltzeko beta jarri zielako. Hona, antologia kontsultatu horretarako prestaturiko galde-
tegia:

1. Zure olerkigintzaren hari nagusiak zein dira?
2. Zer mundu ikuskera eskaintzen diguzu?
3. Zein autore dituzu inspirazio bidez?
4. Nola ikusten duzu euskal olerkigintza gaur egun?
5. Zer zaizu atsegin eta zer ez gaurko euskal olerkigintzan?
6. Nola ikusten duzu gaurko euskal olerkigintza egiten zaion kritika? (XX. 1991,10).

Aldizkariko arduradunek, edo saioaren eragileek poeta hauei bidali zieten galdera-zerrenda: Joxean Arze, Patxi Ezkiaga, Juan Kruz Igera-bide, Tere Irastorza, Joxe Anjel Irigaray, Felipe Juaristi, eta Patxi Perurenari. Ondoren, Joseba Sarrionandiaren lana aurkeztu zuen Iñaki Aldekoak.

Antologia kontsultatuaren saio honetan Arzeren erantzuna bitxia dela esan dugu, bitxia hiru aldetatik. Azken hiru galderak ez dituelako erantzuten, aurreko hirurak ez dituelako eraturiko moldez aurkeztu, eta, batez ere, olerkien bidez erantzuten duelako. Beste era batez adierazteko, poesiari buruzko hizkera logiko-enuntziatiboa eskatzen zaionean, Arzek hizkera analogiko-sinbolikoz erantzuten du, hurrengo ohar hau gehituz:

“Nik uste nahiko hurbildik eta zuzenki erantzuten
dietela zuek bidalitako lehen hiru galderei. Ongi
dagoela deritzot, olerkiak olerkien bidez erantzutea”
(Arze, 1991, 15)

Irakurleari tokatzen zaio, bada, hizkera analogiko-sinboliko hori diskurtsibo bihurtzea. Eta lana ez da batere erraza, irakurleak begi bistan duena printzipio nagusien agerpena besterik ez bada. Horri, gainera, Arzeren hizkera paradoxala gehitzen zaio.

Adibidez, hari nagusiei buruz galdetu diotenean, hiru-lau ezaugarri nagusi jartzen dizkio bere poesiari: poesia ez da deus, begiari goxagarri edo belarriari xamur zaien zerbait ez bada; bada ere, neurri batean, poesiak badu eginkizun poesia ezin da edonola egin, txukuntasuna eskatu behar zaio. Huskeria bat: ikustezina azalaratzea:

Abereek ez bezala,
gizakumeak,
ikusten denean ikusten ez dena batik-bat
ikusteko dauka bihotza
gorputzaren erdian

Ikustezina ikusteko dago batez ere
olerkaria gizakumeen artean:
ikustezina ikusi eta
ikustarazten laguntzeko ingurukoei

Ikustezina ikustera etorri da,
ikustezina ikustera doa
olerkaria,
eta ikustezina ikusiz,
esanezina esatera
olerkitan (1991,17).

Ikustezina ikusteko joera hori -eta era berean ikustezina esateko ahalmena- modu bitara uler dezake irakurleak. Batetik era idealista batez, edo era politiko batez. Lehenari kasu eginik, poesiak misterio ezkutua jarriko luke agerian, zerbait ilun eta azalgaitza. Bada horretarako arrazoirik. Adibidez, elkarrizketa batean honela mintzo da Arze:

Nik uste diat poesia gehiago dela ikuskarien
antzeko: labur, kontzentratu, trinko behar dik
(Gartzia, 1991).

Eta ikuskizunaren ideia-ondoren, elkarrizketa egileak ihardesten du:

Postmodernitatearen garaian, berriz, munduaz
haranzko transzendentziaren bilaketan dihardu.

Poesia transzendentziarekin lotzea nabarmen gertatu da bere azken liburuan, **Ortzia lorez...**-en, non beste lurraldeko pentsakizun metafisikoarekin bat egiten den (tradizio indiarra, tibetarra, japoniarra, lautadetako indiarrena) transzendentzia eta sinboloaren bila. Halaz ere, kontuan hartu beharko genuke poetika hori bere azken liburuiko poemez osaturik dagoela, eta ia erabatez liburu horretako bidea argitzeko balio digula.

Begirada aurreko liburuetara bidaliko bagenu, ordea, eta Arzeren joera zibila eta politikoa kontuan hartu, frankismo-pean estalirik dagoena argira ekartzeko balio duela poesiak uler genezake.

Lehenago gogoratu zuenez,

Hutsune horren (paper zuriaren hutsunearen)
aurrean nik neure historia aztertzen dut, hau da,

ikasi ditudan gauza guztiak zalantzan jartzen ditut
(Beloki, 1975).

Isila adieraztea bada poesiaren lana, lana modu bitara egiten du, lehen aro batean zentsuragatik isilik dagoena adierazten du; bigarren aro batean, gizartean duen egonezinak bultzatzen duenean poetak misterioa, gizartean ikusten ez duena, ekartzen du argitara. Egoera politikoaren aurrean jarrera kritikoa adierazten du poesiak frankismoan. Ondoren, ezinegon berberak eraman du transzendentziaren bila. Frankismoa arbuiatu eta kritika egin, gaurko gizarteak asebate ez eta kritika egin. Beretsua da jarrera, irtenbideak eta planteamenduak desberdinak izan arren.

Deustuko Unibertsitateko aldizkariak iturrien gaia aipatzen dionean, Arzek lau poemez erantzuten du. Orain ere desberdinak dira iritziaren ezpalak eta zein baino zein orokorragoak. Dena den, posible zaigu zerbait adieraztea haietaz. Edertasunaren iturria da lehenik azpimarrituko diguna:

Bi punturen artean,
zein da biderik laburrena?

-Biderik ederrena!

Paradoxak eta aipamen borobilak pentsakizun-jarraipenerako bide egokirik ez dute ematen. Baina edertasunaren iritzi nagusi horrek garbi adierazi du poetaren norabide zehazgabea. Iturri zahar eta ur berriaren artean egin duen kontrajarpenak ere ongi moldatu du neurririk gabe idazten duen idazlearen irudia:

Iturri zaharretatik
edaten dut,
ur berria edaten,
beti berri den ura,
betiko iturri zaharretatik.

Hurrengo aipamen biek, hala ere argitasun eta zehaztasun handiagoa dakarte. Bietarik lehenak, **Ortzia lorez**-eko LXXXII. poemak munduko mistikoen berri ematen du: Shivaren izenetik hasi, Indiako tradizioa onartuz, ekialde urruneko tradizioak, Tibetekoak, Japoniako poesiarenak, ekialde hurbilekoak, Arabiakoak eta Siux Lakotak aipatuz, guztiek osatzen dute transzendentzia bidearen agerpen nahikorik. Denak dira joera beraren agerbide:

Ez zaituztegu urrun.
Eguzki berak gaitu jotzen,
Ilhargi berak ferekatzen,
zuek eta gu.

Luzien Etxezarretak, bere poemak frantsesera itzultzen zizkiotela-eta, egindako galderari honela erantzun zion Arzek 1994. urtean:

Beste herrien funtsezko berrien jakitea gustatzen
zait. Gure bizikide, lurkide edo mundukide direnez,

asko interesatzen zaizkit eta nola alor batzuk guk ez ditugun landu, berengandik asko ikasi dut, neure burua eta geure herria nola diren jakiteko... Uste dut herria eta gizona, bera delarik benetan unibertsal delako. Osoki izatea da unibertsal izatea, ez da besterik (Etxezarreta, 1994)

Unibertsal izateko joera hori gizakien barne-barnean agertuko litzateke, eta badu zerikusirik **homus symbolicus** kontzeptuarekin. Arzeren iritziz, gizakumearen azken erraietara joz gero, bat-bateko izaki garbia aurkituko genuke, benetako egia ezkutua agertuko liguke primitibotasunean aurrera joanez gero izaki horrek, historia baino lehenago, gizartea -batez ere mandabaldeko gizartea- eratu baino aurretikoagoa den izaera horrek badaki bere giza-jakintza ilundugabea den den egia. Horregatik bilatzen du Arzek "Sophia perennis" kontzeptua, jakinduri iraunkorra bailuke gizaki bakoitzak bere barnean:

Jakinduri iraunkorra
lehen zena eta gero datekeena;
mundua hasten bertan zen,
mundua bukatzean bertan datekeena...

den guztiaren, den denaren
Abiaburua, Helbidea eta Helburua (1991,19).

Gizakiari buruzko pertzeptzio garbi, xalo, adierazkor horrek badu zerikusirik idealismoarekin, hippyek sorturiko kulturarekin, eta, bukaeran, ekialdeko filosofiak mendabaldeko kulturaren edo kontrakulturaren utziriko arrastroarekin. Arzeren transzendentziak badu zerikusirik 68koak Europan utziriko bidearekin.

Galdetegiaren bigarrena, hots "2. Zer mundu ikuskera eskaintzen diguzu?" azaldu behar duenak, Arzek bide bi zabaltzen ditu: bata euskararen garrantzia aipatzen du, bigarrenak berriro, egiaren izateaz ihardun du.

Euskara hizkuntza hizkera poetikoaren gainetik beste zerbait sakonagoa da poetika horretan:

hala heldu zaigu,
alde ezezagunetik,
aldi ilhunetik
zaigu heldu,
ahoz aho ahora,
eskuz esku eskura, euskara:
hitza eta bizia...
izenez izen, izaki ooren izana,
izanez izan izadi osoaren zaina,
muina eta gaina (1991,20)

Hitza eta bizia. Muina eta gaina. Hizkuntzak alde metafisikoak hartzen ditu eta herriaren iraunpenarekin lotu du idazleak, ia hizkuntzaren mistika sortu arte. Arzek onartzen du gaurko Euskal Herriak krisi sakona jasoten duela, eta tartean jartzen du hizkuntzaren krisia:

Hondamen hori geure barruaren hondamenaren islada duk. Eta euskarari buruz, nola ez naiz ba arduratuko. Hizkuntza duk herriaren arima eta gure herriari arima hori hiltzen ari zaio (Gartzia, 1991).

Irudi horrekin lotua agertzen da egia kontzeptua, poesia ororen azken helburua, helbide eta abiapuntu, hirukoitasun garbia. Egiaren izaera poetika gisa aurkezturiko azken poemak osatzen du. Egia, lehenago idazleak adierazi duen moduan oreka litzateke, norbera osoki izatea. Primitiboen erroa bilatzen zuenean Arzek “Eguzki berak gaitu jotzen” idatzi du, gizakiaren berdintasuna azpimarratuz. Egiaren bila ari denean, antzeko irudia darabil Arzek: Eguzkia zuzentzen zaio egia eta egia argia da. Eguzkiak argi egiten du eta haragitu da. Egia, argia, haragia: hiru elementu egia zuzen adierazteko:

Ez niri eguzkirik itzal!...
Bekio, arren, bihotz honi egia,
hori du eta bere ogia,

Etor bekio,
betorkio, othoi, bihotz honi argia,
hortaz du eta berak haragia! (1991,21).

Egia bizitzeko era da, barnearekin orekan mantentzeko jitea. Horixe da Arzeren gunea. Baina egia ez da kontzeptu hotza: haragia da eta argia da, edo gorputza da eta izadia. Eta orain bai dugula poetika horren hirukoitasuna aurrean: barne ikuspegi transzendentea, gorputzaren sentikortasuna eta izadiaren agerpena. Izadia eta gizaia bizikide baitira.

1990. urtean idatzi duen poetika horrek batez ere, azkeneko liburuari erantzuten dio: **Ortzia lorez, lurra izarrez** testuari, zuzenki. Hori frogatzeko datu bi ditugu. Lehenak liburuen argitarazio-kronologia hartuko luke kontutan, eta honi atxikiz gero garbiro azaltzen dira garai bi Arzeren liburuko poesigintzan. Lehen garaiak lau liburu, 1969-1979 bitartekoak hartuko lituzke kontuan, artean isialdiko tartea ere gertatu dela 1973-1979aren artekoa; **Ortzia lorez** liburuak osatuko luke bigarren aroa; hori ezagutu aurretik, ordea, zortzi urteko isilune garrantzizkoa jasan du Arzek, 1979. urtetik 1987ra doan isilunea. Zortzi urte horietan ez da egon geldirik; poesian aritu da, baina ez poesiaren liburu-gintzan; egin du bidea baina diska, errezitaldi eta musikaren bidez.

Horregatik, bada, badago batasun haririk Arzeren baliabide poetikoetan, eta poetikaren hausnarketan, baina liburuen kronologiak nahiko garbi azaltzen du garai biren agerpena. Lehen aroan argitaraturiko lau liburuek askoz giro batuagoa darabilte eta poesiaren alde foniko eta bisuala gehiago landu dute; **Ortzia lorez** liburuaren ezaugarria da transzendentearen lanketa zuzena, aurrekoekin eten garbirik egiten ez badu ere; bai tipografian eta baita ere izadiari emaniko tokian bateratsu agertzen dira Arzek argitaraturiko bost liburuak.

Baina poetika horrek **Ortzia lorez** liburuak egoki azaltzen badu ere, besteak azaltzeko poetikarik ez dugu ezagutzen. Zergatik egin zuen hain etenaldi luzea Arzek, eta egon ote zen liburuak argitaratu gabe? Erantzunak ez dira zehatzak baina elkarrizketetan jarraitzen da pistarik.

Adibidez, J. Mollarrik 1982an egiten dion elkarrizketa batean, Arzek bere joera bitala azaltzen du, poesia liburuak argitaratu gabe bizi izan zuen garaia azalduz. Ez dok hamairu taldea sortu ondoren, "Baga, biga, higa" espektakulua eratzen dute partaide guztiek. Taldea desegiten denean, 1972. urtean, Arzek bere bidea jarraituko du. "Ikimilikiliklik" espektakulua eratuko du Josemari Zabala eta Mikel anaiarekin, eta Mikel Laboarekin. Ondoren montatu zuen Arzek "Hitzez eta hotsez" eta, beranduago, "Gizon handi bat da mundua eta mundu txiki bat gizona". Eta horiek dira hamar urtetan emandako pausuak.

Aro bien arteko etenaldirako arrazoia izan liteke hori, alegia, musika eta espektakuluen munduan murgilduta izatea. Baina Arzek, 1975. urtean, lehen hiru liburu argitaratuak dituenen beste arrazoi arruntagoa eman du: ekonomia. Honela mintzo zitzaion Belokiri:

Orain artean liburuak argitaratzeko dirua jarri
didanak, nahiko utzi dit. Ez da berez nere
borondateko kontua. Gehien bat diru kontua dela,
esan beharko nuke. Oraintxe bertan izango nituzke
beste liburu bat osatzeko beste eta argitaratzeko
haina poema eskuartean, bainan... Berriak ateratzen
hasi aurretik, bazeukeat lanik zaharrak saltzen

(Beloki, 1975).

Guztiak moteltzen du argitarazio erritmoa, guztiak eratzen du urteen-muga liburuaren artean.

Lehen liburuentzako poetika baten bila hasiko bagina, ezpalak besterik ez ditugu aurkituko. Lehen garaian, Joxe Anton Arzek bere poesia poesia konkretu eta bisualaren esparruan kokatzen du:

Poesia konkretua poesia esateko eta idazteko beste era bat da. Zaila definitzen... Izen asko eman zaizkio: ikusteko poesia edo poesia bisuala, poesia konkretua, poesia fonetikoa, poesia esperimental... Ohizko, ohiturazko idazteko era hori alde batera utzi eta beste era batzuk bilatu dituztenen... lana dela poesia konkretua esan genezake. Batzuek idazteko era tratatzen dute, beste batzuek, esateko era, hau da, hotsari garrantzi gehiago ematen diote idazteari baino eta hauek egiten duten poesiari poesia fonetikoa deitzen zaio. Beste batzuek marrazki gisan idazten dute, askotan jakiten ez delarik poesia hala (sic) marrazki lana den ere (Beloki, 1975).

Arzek testu horretan bide bi aurkeztu ditu: poesia irudiarekin lotuz, ala soinu fonikoarekin. Biak dira baliabide. Eta biak zeinu berdinen ikur eta agerbide: poesiaren eta artearen mugak hausteko saiakera da. Erdi Aroan, Errenazimenduan eta Barrokoan enblema gisa askotan erabili izan badira ere, XX. mendeko abanguardiak zentzu berria eman die. Kubistek hitzak sartu dituzte beren margoetan, eta poetek irudiak testuetan.

Xabier Kintanak (1975) azpimarratu zuen bikoiztasun hori:

Liburu biotan Arzek, orain arteko inork ez bezala, euskal onomatopeien balio esthetikoa sentierazi digu, graphia, hitz konposaketa eta hutsarteen erabileratik mami handi bat atereaz.

G. dela Torrek (1973, III,286) arte abstraktuarekin lotzen du joera, bere bilakaera gogoratu ondoren (Mallarmé, Apollinaire, Marinetti). Dela Torrek onartzen dio bere metahizkuntza joera, eta zentzu horretan, estrukturalismoaren hedapenarekin lotu da. Kritiko horrek ez dio balio handirik ematen, baina, hala ere, hausnarketa interesgarriak idatzi ditu, konkretismoa 'hizkuntzaren barnean poetak sortzen duen hizkuntza' dela onartuz. Hala ere, teknikaren jarraitzaile izan zen G. de la Torrek ez du konfidantza handirik bere literatur-balioetasunean.

Hitzetik zeinura, horretatik seinalera, gero sinbolora: horra hemen Charles Morrisek ikerturiko prozedura baten jarraipena, esanahiarekin edo hitzen adieraziaren aldaketarekin zerikusirik ez duena, semiotikarekin, eta zeinuen doktrinarekin baino; hona hemen "grafismo autonomo berezietz" baliatzen den bidea eta, Dorfles-en ustetan, "alfabeto berri bakarreko"etan bukatzeko arriskutan dena. Kate hori, agian, ez litzateke lotuko gaurko "informazio teorian", baizik eta inkomunikazioaren praxian
(De la Torre, 1973, III,285)

Joera biak, fonikoa eta bisuala, arteen arteko nahasmenarekin eta joera metaliterarioarekin loturik agertzen dira. Arzeren iturriek kanpokoak dirudite, ez alferrik garaiko kazetariak kanpoan emandako urteen berri eman dute:

Hankak astindu eta aldegin zuen...20 urteko "gazte kezakatsua" Suezi, Londres, Portugal eta Salamanca aldetik ibilli zen (Beloki, 1975).

Arzek kanpoko aipamenak dakartza liburuetara:

Mogimendu hau, esan genezake, Italian faxismo garaian egin ziren kartel eta posterrekin hasten dela, esan genezake, indarrak handiena Brasilgo Noi grandes taldeak damaiola. Sueziako poeta batek eginiko manifesto bat ere sorrera bertan jarri behar dugu. Dadaistak ere ezingo ditugu ahaztu
(Beloki, 1975).

Ezagutu du, hala ere, Madriden Alianza argitaletxeak onduriko antologia, nahiz eta "eskasa" iruditu. Espainian jende asko zegoen gaiaren inguruan: ZAJ taldea (1964), Cooperativa erakundea (1966), edo N.O. taldea (1968), beste aldetik Francisco Pino edo Joan Brossaren lana oso zabaldua zen, baina, informazioa bazuen ere, Arzek ez du horren berririk ematen.

Ikusi dugunez, mogimenduaren izaera eta iturriez ari da elkarrizketa horretan Arze eta bererik gutxi eman du. Urte batzuk igaro ondoren, egindako lanaz hausnarketa arina adierazi du, eta Mollarri esandakoaz baliatu behar dugu berea zertan den jakiteko:

Garai batetan gauzen koloreak eta itxurak besterik ez nian ikusten; orain, berriz, gauzen barru-barruko muina ikusten hasi nauk. Horixe duk. Ilunaldi latz baten ondoren etorri duk hau... Garai batetan ez bezala kontsideratzen dizkiat orain bai ene burua, bai ingurua. Inguruak agintzen zian lehen gehienbat ni baitan: ingurua huen indar eraginkorra. Alderantziz dela orain, esango niake, hau duk, kanpotik barrura orde, barrutik kanpora dihardudala. (Mollarri, 1982).

“Gizon handi bat” espektakuluaz mintzo da Arze, baina inork ez du ukatuko bidegurutzeari delat, eta aurreko esaldiak, kolorearen eta itxuraren aipamenak, onomatopeia eta poesia bisualarekin egin dezake lotura, eta beste iritzi hau

Aldi honetako poemak lehengoak baino landuagoak dituk, eduki aldetik bereziki ezagutza gehiagorekin eginak ezagutza zioat eta ez iritzia (Mollarri, 1982).

bidean zegoen poemategiarekin lot genezake.

Poesia bisualaren garaian bat da iritzia, gero bat da ezagutza; lehen aroan hoskidetzak eta irudiak agindu zuten, bigarren aldian, sinboloak eta Izadiaren irakurketak:

Honetarako, sinbologia tradizionala erabili behar izan diat. Beraz, ez dituk nire buruaren beroaldiren batek asmatutako sinboloak. Tradizioak erabili dizkik sinboloak, eguneroko hizkuntza konbentzionalaren bidez aditzera eman ezin daitezkeen ideia transzendentalak nolabait aditzera emateko. Goragoko errealitate baten irudia duk sinboloa. Eta izaki bakoitza, gauza bakoitza sinbolo bat duk. Horregaitik Islam-en esaten ditek liburu sakratu bat dela Izadia irakurtzen dakientzat (Mollarri, 1982).

1969. urtean argitaratu zen liburua. 68.eko Maiatza garrantzitsua iragana zen. Ez dakit zenbaterainokoa izan zen irudimenaren iraultzaren eragina liburuan. Hegoaldera epel antzera heldu omen ziren Pariseko oihartzunak. Barne giroa pil-pilean zegoen, baina. Garaiko ezaugarriei buruz aritu da mitologia bat. Adibidez, Torrealday 50ko hamarkadako berrikuntzaz honela mintzo da:

Gazte jendea da, gerran parte hartu gabea...
Ikasleak dira, lehen orduan Seminarioetakoak eta gero
Unibertsitatekoak...
Militanteak dira...

2. ISTURITZETIK TOLOSAN BARRU.

Belaunaldi honen kontzeptu orohartzaiileak hitz giltzarri bat du: herrigintza (Torrealdy, 1977, 132-3)

Ezaugarriok, orokortasunean edo orohartzaietasunean, 50ko hamar-kadan jarri badira ere, idazleak berak aitortzen du 70eko hamarkada arte iraun dutela. Laburpenekin zehatzago dabilen Intxaustik, 1961-1975 urteen bitartean jartzen du Euskaldungoaren sorrera, ikastolaren garapen urteak direlarik euskararen komunikabideetako agerpena, bertsolaritzaren indar hartzea, alfabetatze-euskalduntze kanpainen plangintza hasiera e.a. Ildo horretan mogitzen diren guztientzat Rikardo Arregi alboratu ezinezko ikur eta teoriko ezinbesteko da.

Paulo Iztuetak (1996) garaiari "Etenaldia: modernitatearen atarian" deitu dio aitortuz, bide batez:

J.A. Arzek, oso bere bidea eginez, poesia plastikoa lantzen du gehienbat" (1996, 361).

Badirudi Arzek ez duela inguruarekin horrenbeste aldarrikatu den loturarik. Ez da horrela, hala ere.

Orain arte aipaturikoa bezain eskematikoa ez dirudien **Rikardo Arregi. Gizona eta garaia** lantzen Torrealdy-k puntu bitan jartzen du Arregiren pentsakizuna:

Gauza pare bat bai, garbi dago:
nazio zaletasuna hutsik ez zuen nahi
baina ez eta nazio arazoa baztertuko duen sozialismorik...
Abertzaletasun klasikoaren edo "zaharraren" aurka
alxatu zen. Bi puntutan bereziki:
euskaldun/fededun binomiaren aurka
abertzaletasunaren modernotasunik ezaren aurka
(Torrealdai, 1996, 59-61)

Lan berean, ohi duen zehaztasunarekin Emilio Lopez Adan ari da hamarkadaren historia kultural-politikoa marrazten. Denontza oso eza-gunak, honela zerrendatu ditzakegu:

- Esperimentazio berria, budismo eta existentzialismoaren agerpenarekin
- Hazkunde ekonomikoa eta mogimendu langilearen berpiztea.
- Euskararekiko kontzientzia agonikoa
- Oteizaren itzala
- Arantzazuren proiektu artistikoa.
- Arantzazu aipatzerakoan, ezin da ahaztu Euskaltzaindiak egiten duen berplanteamendua.
- Vatikanoko II. kontzilioa modernitatearen bidean.
- Abanguardia, konpromezu soziala, korrante modernoan ezagutza

(López Adan, 1996, 203-229).

Rikardo Arregik idatzitako hainbat artikuluren izenburuek garaioko zenbait pista eman dute:

- Sozialismoa modan dago, (1967)
- Ezkertiar berriak (1967).
- Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu (1967)

Arze, bestalde, artista da, eta garaiko oihartzunotatik hurbil badago ere, eta, ikusi dugunez, frantziskotarrengan behar bezain garrantzirik lortu ez, bere erara ulertzen du garaia.

1969. urtean, eta ez dago urrun 68ko izpiritua, garai bereko seme baitira Maiatza eta liburu honetan agertzen den berritasun eta askatasun nahia, Artzabalen ezizenez idazten zuen Joxe Anton Arzek **Isturitzetik Tolosan barru** liburua argitaratu zuen. Bere berezitasun morfologikoan izenak idazlearen berritasun nahia agertu zuen. Zaharra, Isturitz, eta berria Tolosa, experimentalismoaren eta arte desberdinen bilketez osatu ziren; barnea, leize paleolitikoa, eta azala, frankismoak eraikitako industrializazio peko giroa, soinu eta irudien bidez agertu nahi zituen; Isturitzen hasiz Euskal Herrian zehar egin nahi zuen bidaia Arzek, baina Tolosan barru geratuz. Zaharra eta berria, antzinakotasuna eta gaurkotasuna hurbildu eta ulertu nahi zituen liburuak.

Liburuaren idazketa prozesuak bazuen zerikusirik Arzek "Ez dok hamairu" taldean jotzen zuen tresnarekin: txalapartarekin. Idazlea gai izan baitzen musika-tresna zaharrari indar berria emateko. Txalaparta liburuan agertzen den bikoiztasunaren ikur da: historiaurretik dator, eta abanguardiarekin lotzekoa dugu, erritmo huts den neurrian, esaldi musikalik sortzen ez duen neurrian; Isturitz da, baina era berean Tolosa. Tradizioa eta modernitatea batu zituen Arzek tresna horretan. Agian, ezin dezakegu liburua garaiko arte-mugimenduetatik banandu. Txillidak eta Oteizak bilatu zuten joera berdina: Euskal herriko tradizioan erroturik abanguardiako artea bilatu zuten.

Alde extratestualetan sartuz, liburuko portadak ere batasun berdina bilatu zuen. Arzek ikusten ditu tradizioa eta oroimena, Euskal Herriko historian eta literaturan, baina collage-aren bidez, bikiniz jantziriko neskakten argazkiez heterodoxiaren tradizio bilakuntzaz, sorginkeria adierazten duen akerraren irudiaz, tradizio berri bat adierazi nahi du. Zaharra, edo zaharraren tradizio-bide bat onartu eta eratu du, baina garai-giro berrian kokatuz. Goi-kulturak kitsch-eraino azalak liburuaren hauskortasunaren borondatea erakusten du, zatiaren agerpena eta esperimentazio gogoia agerian uzten dituelarik.

Arte batuketa gisa agertzen da azala eta liburua. Azaleko collageak historia, literatura, artea bildu zituen moduan, bildu ditu liburuak testua, eta musika, eta bederatzi abestiz osaturiko diska txikia azalaren barnean agertu zena; poesia eta pintura, eta Zumetak testuko poema irudiak egin zituen. Octavio Pazek egin zuen modua orrialde zabalgarria agertu zuen, irakurleak zabaldu behar zuen eta gela beltz baten irudiko kutxan poema aurkitu dezan. Kaligramak idatzi ditu Arzek, letren bidez irudia sortu arte.

Testuan ugariak dira joko tipografikoak eta testua bukatzeko Arzek haur joko bat jarri du: kontrazalaren barnean errubeda txikia dago, eta orrialdean eginiko zulo biren bidez irakurri dezakegu poema errubeda txikia higitzen dugun neurrian; poema borobil bat sortu arte:

zerria zertarako? agintari egiteko
 agintaria zertarako? nagusia gordetzeko
 nagusia zertarako? herria larrutzeko
 herria zertarako? periara joateko
 peria zertarako? zerria erosteko.

Eta berriro hasiko ginateke hasieratik, testuaren borobiltasunean betiko harturik

Poesia joko bihurtzen du Arzek eta jokoa luze doa, adibidez, aurki-bidean. Liburua bidaia gisa antolaturik dago, orrialdeetan ez baitira zenbakiak erabili, bidaia herrien izenak baino. Horrela lehen orrialdearen ordeaz, Isturitz aurkituko dugu, eta hortik aurrera Euskal Herri osotik igaroz, bidaia korritzen dituen herri guztien izenak, Tolosaraino heldu arte. Bidaia mitikoa da eta hiru zirkulu adierazten ditu, gero eta itxiagoak harik eta Tolosara heldu arte, non industrializazioak eta giro politikoak bere aurpegiak zakarrena agertzen duten. Bidaia norbera ezagutzeko bidea omen da, baina liburuan, horrez gainera, bidaia Euskal Herri batu baten itxura eman nahi du, eta giro sozial baten agerpena egin.

Aurkibidea eta orrialdeen zenbaketa herriz herri egin bada, nabaria da liburuaren formarekin jolasten ari dela Arze eta horren adibidea da egituraketan egin duen moldaketa. Liburuaren kredituak eta hitzaurrea liburuan erdi aldean daude kokaturik, adibidez, berritasunaren beste agerbide moduan.

Abanguardiarenean legea da lanaren izaerak baino keinu probokatzailerak eta poetikak indar handiagoa dutela. Eta paratestuak alde batera uzten baditugu eta testuetara jo, bat-batean ikusiko dugu testu poetikoek keinua azpimarratu dutela, eta ez horrenbeste testu poetikoaren eritimoa. Beste era batez adierazteko, poesiaren alde formalak, irudiak eta hotsak, tokia hartzen diote poesiaren beste arloei. Bere azaleko irudiak bezain heteroklitikoak dira bere testuak.

Alde batean koka dezakegu umore beltza, ironia, eguneroko esaldiez osaturiko poemak, hala nola, "Portugalдар batek":

kakak diru egingo balu
 gu, behartsuok,
 ipurdian
 zulorik
 gabe
 jaioko giñukek (zandoina)

Beste aldean, poema fonikoak eta bisualak, hots-hitzak eta kaligramak: "Agur" (Oihartzun orrialdean), "Hots ikasketaz: NO ta TO", "Etengabe esateko leloa".

Banan-banan hartuz testu hauek, mekanikoegiak dirudite, edo ironia gordinegia delako, edo konposaketaren alde bakarrari, hots, soinuari, begiratuz sortu direlako. Bien artean, testu liriko minimoetan, maite kantetan, edo amari eginiko askatasun eskarietan aurki ditzakegu Arzeren ahalegin poetiko beteenak: "Egoak ebaki banizkion", adibidez, laster musikatu zuen Mikel Laboak eta arin zabaldu zen euskal-

dungoaren artean. Gogoangarria da, motibu berberagatik, “Gogo eta gorputzaren zilbor hesteak” poema, nahiz eta horretan, Arzeren poema luzeetan gertatzen denez, erritmo aldaketa nabariak diren.

Juan Mari Lekuonak 1970. urtean idatzitako artikulu batean lau atal nagusitan banandu zituen poemategi honetan “neurthitzak”:

1. Aozko literaturaren kimu berritze bat
2. Konkretu izeneko poesia lan ederra... poesien izen-buruak euskal jeografiako jeinu adar eta historia-oiartzun errikoei lotuak; historia ta jeografia ta etnologia baten errotuak. Eta au guztia plastikaren bidez aditzera emanaz....
3. Pikareska moduko filosofi errikoia...
4. Errotutako gizona, pentsamen gurpil agerikoa... Askatasuna da, agian, bere gairik aipatuena ta biozkadarik ozzenena... Emakumea. Era askotako ezpalak ateratzen dizkio egilleak gaia-gerri oni.” (Lekuona, 1970).

Ez zuen ahanzten, baina, bosgarren atal batean “Mugaketak eta arrixkuak” aipatzea:

Bere itz ikasketak eta ots ikasketak, sorgin izkuntza baten lilluratasuna badariote ere, kontu aundia izan behar du egilleak geiegizko batean eror ez dadin...
 Errikoa izateak baditu, baita, bere arrixkuak.
 Errikoa izatea zabalkundea duan poesia lortzea da;
 baiña gal dezake sakontasunean (Lekuona, 1970)

Modernitatearen aurrean aurkitzen da Arze. Egoera bat du aurrean jasan ezina. Egoera sozio-politiko horren ezaugarriak hiru lirateke; fedea, agintea, eta industria. Fedeak, aginteak eta industriak pertsonak bizi diren kokagunea osatu dute, eta Arzek **status quo** horren aurka altxatu du bere idazkera. Lehen-lehenik erroetara joatea proposatu du erroa baita naturaltasuna, egoeraren aurka. Asaba zaharren, tradizio berritu baten agerpenak eragiten du bere planteamendua:

lege zaharren ikastera goazenean,
 ez dugu bakarrik
 Nafarroako erregeekin mintzatuko
 edo
 Isturitzeko txistulariarekin;
 sakonduko dugu gure erroetan
 jatorrak ziraneaiño ...
 egun erakuts dezaigun
 gaur nolaz behar geran mintzatu
 (aralar)

“Izana, izan, izango” deituriko poemak argi erakutsi du erroetan aurkitu duela Arzek irtenbidea. Erroa, hain zehazgabea, tradizioaren eta historiaren irakurketa berria litzateke, aldaketa sortzeko joerta bizigarria. Erroa loturik dago, noski, kondairarekin:

herri bat ba duk
 jakite bat
 eta bere kondaira
 kondaira: gure egiaren hastapena
 (andia)

Kondairarekin eta kondaira ulertzeko moduarekin: horrela, erroetara joatearen lehen ondorioa fedez egoerak mantentzen dituen topikoaz apurtzea litzateke. Eten den lehen topikoa euskaldun-fededun lotura harena litzateke.

gizasemea = kristaua
 euskalduna = fededuna
 kontuz!!!
 bestela,
 gure asaba zaharrak
 haserretuko dira (hiriberri)

Asaba zaharren agerpen honetan Miranderen oihartzuna entzuten da poeman eta Rikardo Arregirena euskaldun/ fededun topikoaren hausturan. Fede soziologikoari egindako kritikak apaizen eta elizaren aurkako poemak idaztera eraman du autorea, edo bestela, oso errazak diren joera sarkastikoak azpimarratzera:

“atso lepo zuriak
 hala zion
 eskaleen beharra dago munduan,
 bestela
 norengan egingo genuke karitatea?” (barakaldo),

Agian esanguratsuagoa da “barakaldo” deitzea poemari, poemaren taiukera bera baino.

Erroekin batera agertzen da errebeldia kontua. Sarrera bat eta alde bi ditu joera horrek. Sarrera, linboaren ukazio litzateke, neutraltasunaren aurka joatea:

inpernutik bada
 etor dedila,
 bainan
 ez dut
 ez dut nahi
 ez dut nahi inolaz
 ez dut nahi inolaz behintzat
 linboan
 sartu (urepele).

Linboaren ukazioak dakar “morroitasunetik gaztetasunera” igarotzea, esaldi hori garai bateko lema izan beharrez agertu duelarik. Linboa eta morroitasuna, egoerari aurre ez egitea, txanponaren bi aldeak dira. Morroitasuna, apaltasuna, aldaketarako prest ez egotea “Hiru adiskide” saileko esanahi berezia da. Hiru adiskideok desegin egin dira bere konformismoan, egoeraren onarpenean:

galtzak kendu ta atzea astindu zioten:
 pakeagatik, ixilik gelditu zen.
 orduan, arratoi batek
 "amen" baten irentsi zuen Joxe
 zingurria zelakoan

(markina).

Egoera berria elementu biren bidez osatzen du Arzek: askatasunaren bidez, emakumearen irudiaren onarpenaren bidez. Askatasuna pentsakizunaren lehen oinarria da. Juan Mari Lekuonak azpimarratu zuen balioaren indarra pentsakizun joera honetan:

Askatasuna, zibilizazio batek dakarkigun morrontza salatuaz. Askatasuna: odola, beldurra, gogorkeria, nagusikeria ta inñungo kate ta kaiolak eten eta uxatu nahi dituana (Lekuona, 1970).

Askatasunaren forma analogia da. Txori kaiolatuaren metafora hartu du Arzek askatasun nahia adierazteko:

txori ttikia nintzelarik
 esan zidaten
 kaiolan bizitzeko sortua nintzela
 orain
 arrano bihurtu naizenean
 kaiola hautsita
 aldegingo dutan beldurrez,
 libro naizela sinistarazi nahi didate(irati).

Poema horren azpian dagoen ironiak txoria kaiolatua uzten badu ere, Arzeren mintzoa, mintzo poetikoa, igarleen ahotsaren tonuan gauzatu da, eta askatasuna du bere helburu nagusi:

nere mingainak ez dezala
 beste munduez mintza
 askatasun errainoak
 gizakumearen atean
 jo artean (zarautz).

Zibilizazio baten aurrean eskaturiko askatasuna dela idatzi zuen Lekuonak. Hala irakurtzeko biderik bada testuan, idazleak aurrean industrializazioa baitu, bere kontsumo-gizarte berriarekin. Halaz ere, frankismopeko giroa salatu zuela ahalegin handirik gabe ikus dezakegu testuan. Ez da, hala ere, zuzen adierazi gai politikoa, baina salatu du idazleak bere ondorio soziala.

Askatasunak, agerik, badu joera pertsonalik. Kurioso da baina, amaren irudia agertu du Arzek zapaltzaile gisa, askatasun murriztaile gisa. Amaren irudi mugatzailea hainbatetan agertu da testuan, baina inon ez "Gogo eta gorputzaren zilbor hesteak" poeman bezain garbi.

bainan gaztaroan
 amatxo maite!
 ohar zaite

benetan maite nauzun ama
 izan nahi baduzu
 eta nik zu maitatzea
 ni naizena
 nik izatea nahi dudana izaten
 ez utzi bakarrik
 bultza behar nauzula...
 ama!
 eten dezagun
 lehen gorputzarena bezela
 orain
 gogoaren zilbor-hestea (tafalla).

Askatasunaren kontzeptua barne prozesu pertsonalarekin ere lotua dago beraz. Amaren irudi hori ez da bakarria testuan. Amaren alde ilunaren aldean bada beste bat baikorragoa: euskararen transmisioarekin batzen du Arzek, irudi orokorrago baten bila:

ama
 amagandik sortu danak
 maite du ama
 ama
 lurra
 harria (zugarramurdi)

Hala eta guztiz, estonagarria da amaren esanahi gogor hori. Gaurko ikuspegitik badiruri, frankismopeko gizarte elizkoï eta itxia adierazteko beste sinbolo batzuk egokiagoak lirartekeela, nahiz eta, geroago ikusiko dugunez, nagusiaren irudiak ere baduen zerikusirik sinbolo ezkor gisa. Baina honek guztiak ez du kentzen gainetik sozializazioa ikuspegi pertsonal edo intimoagatik aldatzeak sortu duen egokitasunik ezaren inpresioa.

Askatasunaren bigarren ezipalak erotismoa hartu du kontuan. Emakumearen irudi erotizatuak garrantzi handia hartu du testuan. Emakumearen agerpenak maitasun erotizatua du lehen agerbidetzat:

AMAIA
 adimen suharreko emakumea;
 zilborra aidean
 galtzak lurrean,
 begitartea zeukan irriz
 zabal zabal irikirik (ahetze).

“Herri hontako neskattoari” poema bezalakoek bizi-poza agertu dute, maitasun idealizatu soila alde batera uzten duelarik, maitasuna eta sexua ongi estuturik:

azalaren ederrak
 ez nau behin ere asetu
 mamiaren dastatzeaz
 ez badut lagundu (maule)

Bizi-pozaren indarrak berarekin dakar antzutasunaren salaketa,
maitasunik gabe bizi denaren uxatzea:

egun
ezpainak dituzu ori
 begia zuri
eta ezetz ziozun
nik eskeinitako
 su eta zeruari...
harrarentzat hautsi gabeko anka
harrarentzat garbitasuna
harrarentzat egin duzun bertutea ezataz (kalagorri)

“Hilotzearen bizitzea” deitu duen poema honetan, Arzek garbitasunaren deuseza jarri du paper gainean, tonu satirikoa ahaztu ez duelarik. Tonu satiriko biziz idatzi du, herri kantutik hurbil dagoen, “Trikitrix kanta”:

atso batek heldu niri
gauza bera nik berari
arraiopola arraiopola
txoria hasi zait kantari (luzaide)

Emakumearenganako maitasuna, beti erotizatua delarik, izan liteke euskal lanerako oztopo:

zu maitatzeak
nere buruari
nere herriari
azpikeria egitea
eskatzen dit (bermeo).

Maitasun gaiaren idotik, emakumeak duen askatasunak sortu dio Arzeri, nire ustez, bere poemarik gogoangarriena: “Hegoak ebaki banizkion”.

Egoera pertsonal eta intimotik ikusi bada askatasunaren, gaia ez da horrelakorik gertatu industrializazioaren gaiarekin. Industria agintearrekin eta nagusiarekin lotu du Arzek. Industria fabrikarekin loturik dago, lanarekin eta lanaren esplotazioarekin.

nere ama hil zait
 lanak itota
lanaren amoreagatik
 hil zait
zertarako dan bizitza
jakitera iritsi gabe. (egilaz)

Urdiain orrialdean osaturiko “gizona ta lana ta” poemak ongi erakutsi du zein den Arzeren ikuspegia. Poema bisual honek irudi bi osatu ditu, fabrikarena bata, makinarena bestea, galdera batez bukatzeko:

lanagatik jana
janagatik makina
nun da GIZONA?

Fabrika lanaren ikuspegi horrek badu ondorioz izadian ere, kutsadura da-eta Arzek aipatu duen beste gaietariko bat. Oria ibaia, Benito Lertxundik egin zuen legez, bihurtuko da maite ez den egoera baten metafora nagusia:

ORIA gure ahalgearen aurpegia
 ORIA basoetako txori sarraskatuak
 ORIA galdu dutenen zigorra
 ORIA goseak ase ezin dituzun iturria
 ORIA ... zure iluntasunean dago
 gure menpekotasunaren
 neurria (ondarru).

Ekologiaren lehen zantzuak entzun ditugu liburu honetan. Industriaren beste eragina da kontsumismoa; ekonomia moderno baten lehen bizikerak ulergaitzak egin eta arrotzak egin zaizkio poetari, eta industriaren mekanizazioa, kutsadura eta deshumanizazioaren ondoren agintea izango da arbuiatuko duen hurrengo joera, nagusia delarik horren adierazbide garbia. Era borobilez argitaratu zuen "Errenteria" poeman, idazleak era ironiko batez adierazi du nola deuseztatu den gizakia -leherketaren bidez- inguruko indarren bidez:

amak: hemendik
 aitak: horrela
 apezak: hau da egia
 maisuak: ezta hau, azta hau...

eta horrela jarraitu du gizarteko erakundeek nola garbitu duten nortasuna azaldu arte.

Agintearen gaiarekin loturik dago errebeldiaren gaia, edo alderantziz, geldi ez egotearen beharra, linboaren ukazioa. Arzek, dirudienez, borroka guztiz maite ez badu ere:

ederra bada herriagatik hiltzea
 zein ederrago herriarentzat bizitzea (lasarte),

konformismoaren aurka altxa du boza. "Hiru adiskide" sailak amore eman dutenen irudia da, bizitzak gaina hartu diotenak, konformatu egin direnenak, eta hirurak desagertu dira, itxuraldatuz, arratoi batek janda, bat-batean hilda, gorrotogarri bihurtua.

Linboa liteke konformismoaren eremua eta horixe da Arzek kondentatzen duena:

bihotzetik haserrea,
 bihotzetik negarra.
 hori gerta ez dadin
 ardotan hoztu
 hoztu behar da bihotza
 bizitza
 linbo bat bihurtzeko:lo
 kaka, makina...
 (iruñea)

1973. urtean eta LP doblea balitz gisa, liburu bikoiztua argitaratu zuen Arzek esaldi bakarra bitan banandua: **Laino guzien azpitik** deitu zuen lehen aldea eta **Eta sasi guztien gaintetik** bigarrena

Lene liburuan erroen bila ikusi genuen Arze, oraingoan sorginen bidetik, sorginen legean, sorgin edo ahuntz hizkuntzan ikusiko dugu. Sorginen legea, gizartetik at kokatzen den gizakiaren modua liteke. Arzek lehen liburuan bere bidearen urratsak moldatu ditu, orain sakondu. Gaietan ez dago aldaketa handirik, jokoak jarraitu du bere hartan, inoiz aurreko poemategiko testuak hartu eta landu ditu berriro. Baina bada desberdintasunik aurreko eta ondorengo liburuen artean. Seguruago agertu du bere burua orain. Poemak luzeagoak dira, orohar, epikoagoak, eta narrazioa mantenduz, paradoxak eta ironiak gehiago agindu dute.

Garaiko kritika batean, Edorta Kortadik honela batu zituen liburuan erabiliko gaiak:

Xori poemak, gure historiko izatearen zeruan hegan dabiltzanak eta zenbait gai berdin erabiltzen dutenak:

- a) Biziri eta hurreko gauzei amodioa.
- b) Kreaturaz gozatzea eta zerura joan nahi eza.
- d) Kristautasun historikoak zapaldu dituen gorputz erotikoaren alderdiak altza nahia.
- e) Erantzukizunera eta denen partizipaziora deia
- f) Eguneroko gertakizunen azterketa: lana, dirua, sexoa, Miramar, Larraitz, Navas de Tolosa, Jon Mirande...
- g) Numeroak hitzaren lekua betetzen duen gizarte bati eraso, gizarte honetan hitza ulertezina gertatzen baita, gizonak ez baitu irakurtzen ez ulertzen: atzekoz aurrera poemak, numeroak eskuz idatziak. (Kortadi, 1974).

Moldapena ez dago gaizki emana, ikuturen bat edo beste beharko balu ere; Kortadik azaldu zuen, gainera, zeintzuk ziren Arzek agertzen zituen oposaketarik nagusienak, guk hemen goitik behera jarri ordez, eskuin ezker emango ditugunak:

Bizitza/heriotza, zerua/infenua;
zapaltzailea/zapaldua; lege zaharrak/lege berriak,
zuria/beltza, garbia/zikina, aingerua/deabrua
(Kortadi, 1974)

Edorta Kortadik banaketa horiek agertu zituenean, Arzeren lanean nagusiak ziren banaketak aztertu zituen. Kortadiri zor zaio, era berean, liburuan erabilitako joera tipografiko nagusien zerrendaketa:

numeroak idazten dituzten...eta une honetan numeroak bere esanahiaren eta ekonomi-zentzuaren garrantzia handitu egiten du. Berebat, goitik-behera nahiz alderantziz, espazioan esegitako hitzekin edota negatiboan inprimaturiko hitzekin jokutzen du...

3. SORGINEN LEGEA

atzekoz aurrera eginik dauden orrialde
 itxuragabeetan, aztikeriaz eta absurdoz beterik
 dauden grammatika ekuazioetan, halatsu gertatzen
 baita egunoro bizi ditugun giza egoeretan

(Kortadi, 1974).

Bukatzeko, testuan agertu diren indar berezi biren berri eman du
 Kortadik: poesia sozialaren, amodiozkoaren eta umorezkoaren berri:

Ez dira hain borobilak bere sozial poemak, "Roll
 Royce". "Bertold Brecht i omenaldia", "Ama hil zaigu"
 hiru hauek ezik; amoriozko poemetan halako
 zakar kutsu bat aurkitu diogu, poesiari sakontasuna
 kenduz; agian, denboraz eta lasai Harzabalek fruitu
 ederrik emanen du amorio-erotiko tankera poesian,
 honen premia ederra baitu gur herriko poesiak.
 Humore fina eta zorrotza duela ohartu gara
 obra guztian barrena... bai eta herrikoi sena ere...
 erotismo zentzukor eta alai bat ere badu; irteera
 xeble eta itxuragabeak, gure humoristek eta
 bertsolariek ohi dutenez (Kortadi, 1974).

Honaino garaiak, Edorta Kortadiren bidez, obra honetaz esan duena.
 Gaurko ikuspegitik, ordea, lanak bidea eman du bestelako irakurketarik
 egiteko. Arzek erreboltaren bidea aukeratu du. **Isturizetik**-en erroen
 bila abiaturik ikusi genuen, bidea hasiz eta aurrera eraman nahiez
 proiektu artistikoa, era berean ideologikoa eta estetikoa. Ideologiaren
 aldetik bermatu ditu bere iritziak eta erreboltak indar handiagoa hartu
 du. Estetika ikuspegian hiru arlo azaldu behar ditugu. Lehena, aberastu
 egin ditu, bai tipografiaren aldetik bai esperimentazio aldetik, bere irudi
 moldeak. Arazoa, baina, ez dago arlo horretako poemetan, hotsaren eta
 irudiaren indarra ez duten poema normaletan baino.

Horietan ere aurrerapausu nabarmena nabari zaio Arzeri, erritmo
 gordina nabari baizitzaion lehen liburuan; leundu egin du honetan, eta
 bere espazialtasunak eskaturiko paralelotasunaren agerpena malguagoa
 da bikoitz honetan.

Arzek oratu du bere pentsakizun mundua. Aurrean duen mundu
 ordenatua desegin nahi du: desordena da bere joera nagusia; eratua
 dagoen, konforme eta kontzientziarik gabe dagoen mundu baten
 aurrean, bera beste era bateko joera ekartzera etorri da. Berea bersortuz
 ari den mundu bat da; berak aldatuz doan mundua agertu nahi du. Bada
 oraindik ere mundu bikoiztua, azal eta mami, zuri eta beltz, goi eta behe
 agertu duena, baina zantzu berriak ditu, eta neurri batean konplexuagoa
 da.

urlia
 sandia
 berendia
 holako eta halako
 eta beste hura

zeruan badaude
 nik ez
 otoi!
 ez dut zerura joan nahi (SGG, 32)

Arze da euskal poesian alderantzizko egoera baten defendatzaile, joko paradoxalaren bidez, marginalitatean kokatzen dena. Berak beste ikuspegia eman nahi du, gizartea alderatu, desordena kokatu, barria ekarri.

Poesia honen irakurketarekin hasi aurretik, aipuekin arazoa dagoela aitortu behar dugu, liburuak orrialde-zenbakirik gabe emanak baitaude. Gure aldetik jarri diegu zenbaki bat, eta horrela emango ditugu aipuak argitasuna bilatu nahiez.

Ideologiaren aldetik, lehen aipatu behar dena Arze bizitzaren alde agertzen dela da, eta norbaiti ideologia ez bazaio iruditzen bestela esango dugu, heriotz-zigorren aurka ez dagoela.

dakidanean
 nazenean
 ez dut beste parabisuren beharrik ukanen (LGA,65)

Bizitza desorekaturik agertu zaio aurrean. Aldaketa da nagusi eta aldaketa adierazteko ez da jada gai gramatika arrunta, ezkerretik esku-mara zuzen doana. Esaldiaren erritmoa ez da jada nahikoa munduak jaso duen geroago eta arintasun handiagoa agertzeko. Gauza asko gertatu ohi dira era berean; era berekoa dena, simultaneo dena adierazi behar da, bat-batean adieraziz une askotan gertatu dena. Aita eta amaren inguruko poemak jokabidea (SGG,41. orrialdetik aurrera) horixe da: esaldia irudi bihurturik agertu zaigu, begiradak ez du jarraitzen orden arautua, bat-batean ikus dezake irudia, eta ohiko esaldia irakurtzeko baino denbora handiagoa beharko badu ere, kolpean jabetuko da joeraren agerbideaz, lotuko du begiradaren unean, batera agertzen diren letra multzoa eta ama eta eme lotzen dituen haria une batez agertuko da.

Pertsonaia anitza da, ez da bizi betikotasunaren eremuetan, nahiz eta poema parodikoa izan, eta kritika sozialak hemen planteatzen dugun joera ilundu, "Itxuraldatze 3" deituriko poemak (LGA,51) nahiko garbi azaltzen du aldaketaren zioa. Poemak Eneko gisa jaiotzen eta ametsetan eta asmotan gora eta gora eginaz, Iñaki, Iñazio, Ignacio, Don Ignacio eta Sr. Don Ignaciotik igaro ondoren Exusissumus Domine Ignacius bihurtu arteko pertsonaiaren historia kontatzen du.

Aldaketa nagusi den munduan hizkuntzak ere ugariak dira. Esaldia irudi bihurtu bada, Arzek beste hizkuntzekin espermentatuko du zentzua-ren bila: zenbakiak erabiliko ditu hizkien orde; numeroen erritmoa sortuko du; orrialdea zuriz utziko du irakurleak han jar dezan bere poema.

Aldiaren aldaketak, askotan errepikatu den bezala, berarekin dakar gizartearen krisialdia: gizarte rurala hiri gizarte bihurtu da Euskal Herrian eta baserria industriaren eraginpean kokatu da. Gizartea aldaketak kolpatu eta zartatua bizi zaigu.

Horrek guztiak zabaltzen du poemategiko alde soziala, aurreneko **Isuritzetik** liburuarekin lotura eginaz, hango poemaren bat edo beste hartu eta berriatzi du Arzek, han garbi ziren gai batzuk berriro hartuz

eta sakonduz. Hala nola, lanarena edo nagusien izaerakoa. Ikuspegia, hala ere, zerbait aldatuxea agertu da. Orain lanaren alde positiboa ere agertu du, aukerakoa denean, behintzat:

ez dela lan onik
hautatzen ez denik
ez dago esanbeharririk (SGG,17).

Nolanahi, oraindik makinaren aurkako joerak, deshumanizazio tentaldiak eta nagusiaren karikatura-irudiak nabarmenak dira testuotan:

goizean goizik,
gauean berant
eta ohean ere
lan eta lan hintzena,
asto tontoenak baino
ezaguera gutxiagorekin
gizon hondratuaren legea betetzen
diru hondarrak sari...
ugazaba aberatsa
eta aberatsago egiten (SGG,50)

Egoera sozialaren aurrean elkartasuna proposatu du oraingoan Arzek "lege berriak" sortzeko asmoz, guztion elkartasuna eskatuz. egoerak ez badu laguntzen ere. Garratzagoa da, ordea, neutralen aurkako mintzoa, linboan bizi direnen aurkako hizketa:

askatuko zaituen
zai bazaude
zaude lasai
zaude ziur

askatuko zaituela

kateak itsusiak baitira hilotzen gorputzetan (LGA,41).

galdu dutenekin elkartuko naiz
bainan, ez
sekulan ez
jokatu ez duenarekin (SGG,51).

Bertold Brecht-en omenez idatzitako poema dugu orain aipaturiko hori, bere karga sinboliko osoarekin. Garratza da tonua, epaiketa egin izan balu bezala idazleak, eta garaiaik presa balu bezala. Testuinguru honetan kokatu beharko genituzke bai historiako pertsonaieiz egindako poemak, bai Euskal Herriko historiaz ondurikoak.

Gizarte lotura berriagoak, solidariagoak bilatu ditu idazleak eta Salvador Allenderen omenezko poema litzateke hemen aipagarriena, inguru politikoak Arzerengan duen indarra ikusteko:

ireki
deus etengabe
oraindik inor ausartu ez den bezala
herri bide

bide berria
urratzeari ekin hioanean (LGA, 58).

Herri-bide horren langintzan Arzek Euskal historioaren berrinterpretazio bati ekin dio, gure iraganeko datak erreparasatuz (LGA,39), katea luzea dela baietsiz. Euskal Herria den luzapenean, Arzek kanpokoan aurka, batez ere Euskal Herria suntsitzera datozenen aurka egin du: joera berezi horren aipamenak garbiak dira testuan:

eman eta hartuko dugula
sartuko digutela
baldin
ematera datozenean
ez badugu, behingoz
leihatila nola hertsu ikasten.(LGA,39).

Aldaketaren menpeko dagoen gizarte baten agerpena litzateke kutsu xenofobo hori ere. Nolanahi ere, Arzek jarraitu du askatasuna lehen mailara ekartzen eta, amodio poema ere baden honetan ikus dezakegunez, askatasunak jarraitu du idazlearen pentsakizun munduaren oinarri izaten:

zure askatasunagatik
borrokatzen banaiz
kantatzen badut,
ez dut, urrikia dizudalako
kantatzen...
zure askatasunean
zure zorionean ez ezik
ez baitut neurea
beste inun ikusten (SGG,60).

Aldaketaren aurrean, baina borroka aparte beste bide barnekoia goak erabiliko ditu Arzek, bere poesiari bide berriak eraikiz. **Sasi guztien gaineratik** lanerako kontrazalerako aukeraturiko poeman, testuaren aurkezpen izan nahi duen mezuan, beraz, irtenbidearen berri eman digu. Orixeren oihartzuna dakarren bertsoetik hasiz, Arzek barneratu nahi duela azaldu du, eta barneratuz ingurugiroarekin bat egin. Inguruak, ordea, ez du orain esanahi sozial edo politikorik; mistikoa edo litzateke irtenbidea: paisaiarekin bat egin, urarekin batu, sua bizi, haizean ezeztatu, eta lurtean gauzatu. Hara nola idatzi duen Arzek:

 bildu behar naiz barrura
 neure barrura
 neugan
neure egia bila dezadan.
 nigan bailegoke
 neugan sumatzen dut
 dagoela
 nere egia...
den eta dabilen guztian kokatuz

eta Inguruarekin bat izanaz
Inguruaren etengabeko higiduran (SGG,azala).

Barneratu eta gogoan sakonduz inguruarekin batzeko joera agertu du Arzek, eta bere barnean kanpoaldea eta bihotz-ikuskitza biltzen direnean sortzen da, etengabeko higiduran, aldaketan, oreka:

maite ditut
maite
geure bazterrak
lanbroak
izkutatzen dizkidanean (...)
orduak hasten bainaiz
izkutukoa....
nere barruan bizten diren
bazter miregarriak
ikusten (SGG,28).

Inguruarekin batze-prozesuak badu zerikusirik, azkenik maitasunarekin, maitasunean biltzen baita, poema borobil honek adierazten duenez, egia:

zuga dagoke
zuga datza
egia osoa
zuga eta oroan
oroan eta zuga
oroan (SGG, 24).

4. BIDE BAZTERREKO KANTARIA.

Edorta Kortadik zuzen idatzi zuen:

Harzabalen poesiak, zinez, irakurlearen aldetik indar-egite bat eta eskuhartze bat eskatzen du
(Kortadi,1970)

Irakurlearen ahalegina eta partaidetza eskatu baizituen aurreko liburuetan, areagotu da erregua oraingo honetan. Ezaguna denez, Euskal poesiaren historiaren ia oihartzunik gabe igaro den liburu honen letrak osatzeko eskatzen dio irakurleari. Partaidetza erabatekoa da liburua egiteko eta irakurtzeko orduan.

Lehenik ere baziren partaidetzarako deiak:
liburu honi falta zaion zatia
beha ezazu
hor, zure etxean nunbait gorderik dago
(SGG,1)

Kontua da, ordea, azken muturreraino eraman dela honetan proposamena eta irakurleari partaidetza osoa (berak idatzi behar du liburua) eskatu zaio. Proposamenak, ordea, lakirioa dakar bere baitan: lan handiegia eskatu zaio irakurtzen hasi orduko, eta mekanikoegia: amanuense lana eskaini zaio irakurleari, lehenik, eta ez interpretaria-

rena. Eta hor arazoa sortu zen, batez ere, interpretazioan jarritako askatasuna proposatzen etorri zirenean beste abanguardia batzuk. Irakurtzea maiteegi ez duen gizarte batean, irakurri aurretik liburua mekanikoki idaztea proposatzea larregizko manatu ez ote zen nago. Joerak gordetzen zuen, baina, beste ezusterik. Begiaren eta belarriaren esperimenzioaren ondoren hasi zen Arze eskuaren eta ukimenaren esperimenzioarekin.

Liburua idazketaren eta eskulturaren arteko bidean esplorazioa da. Arzek baditu bere historian horrelako saiakerak. **Isturitzetik** liburuan bazegoen hiru planutan agertu zuen poema bat: zabaltzen zen lau aldetako paper baltzak kutxa bat edo gela bat osatzen zuen eta haren barne zurian poema irakurri zitekeen, Octavio Pazek egindako kutxa poetikoen bidetik zihoan froga. Baina liburu honetan bestelakoa da jokuak: liburua egin-egin behar da, ikutu, idatzi, marraztu.

Arzeren orain arteko azken liburua denen artean borobilena da. Berak, eta jada ezagutu ditugu bere hitzak aldaketa batean ikusi du bere burua:

Garai batean gauzen koloreak eta itxurak besterik ez nian ikusten; orain, berriz, gauzen barru-barruko muina ikusten hasia nauk. Horixe duk. Ilunaldi latz baten ondoren etorri duk hau... Garai batean ez bezala kontsideratzen dizkiat orain bai ene burua, bai ingurua. Inguruak agintzen zian lehen gehienbat ni baitan: ingurua huen indar eraginkorra.

Alderantziz dela orain, esango niake, hau duk, kanpo-tik barrura, ordea, barrutik kanpora dihardudala

(Mollarri, 1982)

Urte berezi horretan Arze **Ortzia lorez, lurra izarrez** deituriko liburuaren bideak zabaldu nahian dabil. Gorago ezagutu dugunez, hitzok ez zituen liburua buruan zuela esan; ordurako taularatu nahiean zebilen "Gizon handi bat da mundua" ikuskizuna zuen gogoan hitzok esaterakoan. Baina komentatu nahi dugun liburua kokatzeko ere oso egokiak dira berriro orrialdeetara ekarri ditugun horiek. Arzek jakin bazekien bide berritik ari zela, itxuratik urrunduz eta mamira jaitziz. Edo berak aitortzen duenez, iritzitik jakintzara eman da aurrerapausua hemen. Eta jakintza barne munduari eskaintzen zaion begirada da, gizakiaren barnekoerari zabaldu zaion atea.

Gaiak agintzen du liburuan eta ez horrenbeste formak. Poema bisualak eta kaligramak ia guztiz desagertu dira liburutik, eta tipografia aldaketak mantendu badira ere gaiari begira edo mezuaren edo egituraketaren mende gorde dira. Poema fonikoak ere urritu egin dira nabarmen, eta direnak ez dira soinu-jolas huts, esanahiaren joko baizik, eta esanahiari begira jarriak. Liburuan nagusi diren espresamoldeak pentsakizun-espresabideak deituak dira: paradoxak, hitz jokoak, simetria, eta antinomiak, kontrajarpenak eta pentsakizun bihurriak. Oximorona, aurkakoen batuketa, izenburuak agertu duenez, litzateke espresabiderik garbiena liburuan zehar.

5. ORTZIA LOREZ ESTALIA

Bikoizketa da irizleek gehien nabarmendu duten ezaugarria. Hona hemen haien iritzi batzuk:

Duela urte batzuk hain sona handia zuten dualidadeak jartzen dizkigu oraingo honetan palestran, gehiegi-txo gure gusturako behintzat. Gai lainotsuekin jokatzeari gustoa hartu dio, aidanez, sententzia kutsuz blai eta erlijioarengandik hain hurbil dauden poema motz, salmo eta beste antzeko abarrak ugariak dituelarik (Mendizabal, 1987).

Bikoizketaren agerpenari, gaiaren nagusitasunean eta pentsakizunaren joera nabarmen ez da bakarra **Argia** aldizkariko kritikoa. Felix Ibargutxik ere zuzen jo zuen bide beretik:

Oso gogoko ditu sententzia moduko poema laburrak, eta seguru aski hortxe erakusten du indar eta jeniorik handiena (Ibargutxi, 1987).

Pentsakizuna, gaia, sententzia, bikoiztasuna Arzek berak azpimarratua:

Aldi honetako poemak lehenengoak baino helduagoak dituk /.../ Dualidadearen jokoa erabili diat gehienbat obra guztian zehar. Bizitza eta heriotza, sua eta ura, lurra eta haizea, uda eta negua, gaua eta eguna, espazioa eta denbora... Denok zekiagu, segun eta zer aldetik begiraten diegun kontrario diruditen bikote hauei, elkarren artean konponezinak diruditela; beste ikuspegi batetatik begiraturaz, ordea, elkarren osagarri bezala agertzen zaizkiguk (Mollarri, 1982)

Bikoiztasunaren paradoxarekin jokatzen duelako, hain zuzen ere aurkakoen arteko loturaz, pentsakizunaren alde bikoitza mantendu duelako Arzeren poesia ez zaio erromantikoa iruditzen Patziku Perurenari (1988), Arzeren hitza arrazoia dela baieztatu duenean. Urte horietan irudimenaren defentsa sutsuan ari zen Perurena eta estetika, beste alde batetik estu eta murriz, horrentzat paradoxak eta teknikaren agerpenak irudimenaren suntsipena irudituko zitzaion. Baina hemen irudimenik ez dagoela baieztatzea urrunegi joatea litzateke, neurri berean erromantizismoaren ukapenak ez luke zentzu handirik edukiko azalari eta itxurari soilik begiratu beharrean, literatur lanaren asmamen munduari eta joerari erreparatu izan balie.

Kritika munduak, gainetik baino ez bada ere, tratatu du beste alde interesgarri bat: zein neurritan den lan hau aurrekoen jarraipen edo aldaketa. Arzek, beti ere "Gizon haundi..." batez ari dela, garai biren agerpena deskribatu du. Hala ere, garbi dago ikuskizunaz esandakoak baduela honetarako baliorik, baitira loturak "Gizon haundi..." eta **Ortzia lorez** liburuaren artean. Batetik ikuskizunaren izenburua aipatu egin da; bestetik, Mollarri emaniko elkarrizketan liburuan agertuko diren joerak aipatu ditu:

Hasiera batetan gizakia androjinoa, bisexuduna bazen, hauen bereizketarekin batera etorri huen

munduan zen guztiaren bipolarizazio hau, bataren
erdibide hau (Mollarri, 1982)

Lan artistikoan banaketa ikusi bazuen Arzek, kontinuitatea
azpimarratu dute liburuez idatzi dutenek:

Edukiari errepasotxo bat emanez gero konturatzen gara
sinbologia, sortzen dituen mundu, metafora eta abar
luze horien aldetik ez dela aldaketarik (Mendizabal, 1987)

Itxuraz aski desberdina den arren -batere
ilustraziorik ez bait du, eta norberak osatu beharreko
poemarik ere ez dago- muinak lehengo horretan segitzen
du neurri handi batean (Ibargutxi, 1987).

Liburuaren lehen gunea nortasunaren izaeraren bila egindako
diskurtsoa da. Hasieran, eta ideia guztiz erromantikoa da, batasuna
irudikatu du poetak eta, ondoren bikoiztasunaren izaera agertuz, batasun
haren menez bizi izango da poeta, hasierako nortasun garbia bilatu
nahiaz.

Joera hori onartuz gero, gaiaren zabalkundea ikusi beharko genuke
lehenago. XCVII. poemak ongi adierazi du Arzek agertu nahi duen
joera. Indiako tradizioari jarraiki, testua hizkuntza originalez eman
ondoren, honela itzuli du lema nagusia Arzek:

Itzarrik, Ametsetan, Lo sakonean, Areago (OL,173)

Barnerago eta sakonago jo duen sekuentzia horretan garbi azaldurik
dago nora joan nahi duen poetak: kontzientzia eta azpi kontzientzia
baino haratago eta areago dagoen egoera baketsua lortu arte.

Dialektika bikoitza da nabarmen liburuan zehar. Arzek adierazi
duenez, bikoizketako aldeak aurkakoak dira ikuspegi batetik, baina
elkarkidetuak bestetik. Oximoron joera horrek (ortziari dagokion izarra
lurrari atxiki, eta homi dagozkion loreak ortziari) eman dio liburuari bere
senarik garrantzitsuena. Izaeraren lau aldeok (bikoiztuak eta
adiskidetuak) behin eta berriro agertu zaizkio hizjarioan:

Lur honetan ez duzu zorionik
hain gozoric,
ozpin tantarik ez darionik.
ez eta zorigaitzik,
horren garratzik,
ezti tantaz eztitua ez denik (OL,95).

Yin eta yangaren balantzak ez du joera manikeoa lortzen, orratz
magnetikoaren lau aldeak oso kontutan hartu direlako,

Ipar haize hotza,
Hego haize beroa,
Sartaldeko haize hezea eta,
Sortaldeko haize lehorra bildu ohi diren bidegurutzean,
bidegurutzearen erdian

(OL,163).

Bidegurutzearen erdian kokatzen dira ez mendebaldeko lau elementuak, baizik bost:

(eterra, haizea, sua, ura, lurra) (OL, 168).

Bidegurutzean dago eskuz idatzirik agertu duen poema bakarra, aurrez erabiliko ikus-poesiari tokia emanez. Poema esanguratsua dugu arrazoi bigatik: liburuaren erdi aldean kokatu duelako poetak, eta liburuaren atzeko azalean agertu duelako bigarren aldiz. Honela dio poema horrek:

Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten,
beti berri den ura,
betiko iturri zaharretik (OL, 107)

Ur berri/ iturri zahar, beti/betiko pare bien arteko jokaerak agertu du Arzeren paradoxaren itzala. Nortasunaren bila abiatzerakoan nostalgia nagusitu zaiona:

Ilhunbetatik irten bai,
baina argitara itritsi ez...:
hori da ametsa,
eta hori, bizitza (OL, 120)

Galdutako batasuna amesten du pertsonak, eta tentsioa bizi duen artean, ez dena izan nahi den artean, denbora horretan agertu du idazleak bizitza: ez dena izen nahiez bizi denaren jokia litzateke hor agerturikoa. Jokoa, eta jolasa.

Izaera, berez, bilakaera da, bilakabidea; bestea den maitearengan nortasuna bilatu, aurrera jo:

Izan zaizkit ate,
maite,
izan nakizun bide! (OL, 211)

Bidea egin egiten da egiaren bila:

- "Bi punturen artean,
zein da biderik laburrena?"
- "Biderik ederrena!"
- "Eta, zein da biderik ederrena?"
- "Egiara daramana" (OL 125-6).

Egia, baina, beti izango da mugikorra, aldakorra, harrapaezina:

Egia, agian, begian garratz,
baina bihotzera orduko aratz. (OL, 127).

Nortasunaren bilakaera horrek hiru ondorio nabarmen dakartzkio Arzeren poesiagintzari: metafisikara jotzea, beste herrialdeetako ideietara hurbiltzea eta hizkera poetikoaren mamitze-prozesua.

Barne muinetara jotzen denean, ideia erlijiosen agerpena normala da, nahiz eta Mendizabal konformeegi ez azaldu:

Erljioarengandik (sic) hurbil dauden poema motz,
salmu eta beste antzeko abarrak ugariak dituelarik
/.../ Zerbait egotztekotan, poema askotxo mistika
horiekin komulgatzen dutenek salbatuko dituztela
(Mendizabal, 1987).

Tonuak eta konplizitate loturak agertuko lukete irizlearen iritzia zein den, pentsakizunaren eta izaeraren agerpenez Arzek egin nahi duen bidaiaz. Baina izaeraren bila joateak badu zerikusirik norberaren zibilizazioaz egiten den ukazioarekin. Bere gizarteari eskaintzen dizkio kritikak Arzek:

Liburua hau kezkez betea dator. Hasteko, zibilizazio
hau kolokan jartzen du, era askotako galderak eginez
...ez al den hau gizonak inoiz bizi izan duen arorik
zoroena, beti presaka ez ote garen itoko, ondo hazten
ote garen umeak horrenbeste jostailu dutelarik, mai-
tasunik gabe bizi ote liteken (Ibargutxi, 1987).

Zerrenda ederra eskaini digu kazetariak eta zorrotza. Hain zuzen ere, aipatu egin ez badu ere, industrializazioak sorturiko modernitateak bere altzoan daramatza konsumismoa, denboraren balorazioa, izadia ahaztear uzteko joera. Hiriak eta modernitateak sortu ditu bizikera berriak. 68koak ahaztu gabe ditu oraindik Arzek, eta "naturala" dena, "izadiko" dena berbaloratu behar du, izaeraren erroetara jo duelarik, izadia eta izaera barne-muinetan bilatuz. Erroetara joate horrek mugatu du liburuaren lehen mugarrria. Erroetan nortasuna azalduko duen hizkera aurkitu direlako.

Barnertze prozesua, hala ere, gizartetik irteteko modua da, gizartek sortu duen "artifizialkeriatik" urruntzeko modua, eta bere erroetan hippy-en joera ere nabari dezake batek baino gehiagok.

Barnertze bidean Arzek ikusten du ez dagoela bakarrik. Herri tradizionalak erakusten dutela jakinduria sakon, errotua; eta abantaila birekin: berak nahi duen nortasunaren antzeko jakinduria dela, eta mendebaldekoa ez dela. Horregatik jotzen du Arzek ekialdeko kultura hindura, sanskritora eta tuareg herrira: nortasunaren izaera bilakabidez osatua sortzeko edo irudikatzen.

Jakintza naturala bada, betikoa da, kultura berekoak dira, neurri batean munduko kultura guztiak erroetara joz gero. Eta, azken batean, unibertsalaren ideia, bere joera utopiko osoarekin, nahiko barreiaturik zebilen mendebaldeko iraultza kulturala gertatzen deneko.

agur eta ohore zuei, agur eta goraintzi denoi!

Ez zaituztegu urrun.
Eguzki berak gaitu jotzen
Ilhargi berak ferekatzen,
zuek eta gu;
Euri berak bere garaziaz bustitzen
Tximista berak argiz betetzen,
zuek hor eta gu hemen.

Eguzki bakarrak dizkigu
 gabiltzan bide anitzak argitzen,
 zuei eta guri,
 Lur bakarrak gaitu bazkatzen
 eta Indar bakarrak eusten
 zuei orduan eta guri orain,
 zutik (OL,156)

Liburuaren joera nagusia ulertzeko poema-giltza litzateke hau. Badira bertan hiru-lau gauzatxo aipatzeko modukoak. Bata, ahaidetasuna edo anaitasuna litzateke: zuek horiek ez baitira besteak: India, Tibet, Japonia, Ekialde Hurbila, Arabia eta Siux Lakotak, denek dute zerikusiren bat barne iturri horretara jaitsiz gero: Betiko urak isurtzen dituzte. Poeman naturan jartzen du Arzek denon arteko lotura nagusia: natura bera bizi dute herriek eta naturak bizi ditu.

Hala ere ez da naturaren ikuspegi zoli eta garbia loturarik sendoena: herrialde guztiok dute jakituriara heltzeko bidea, denek dakite gizakiaren eta izadiaren arteko oreka nola lortzen den:

Dakienak ba daki
 nora dijoan jakiteko
 behar duela
 nondik datorren jakin;
 nondik datorren
 nora dijoan jakin
 non dagoen jakingo badu;
 etorri aurretik ikusi duenaz orhoitu,
 joan ondoren hura bera ikusiko bait du (OL, 44).

Jakituriaren bide honek Egiara garamatza, eta Egia bihurtu du Arzek poemategiaren giltzarri. Ebanjelioak erabiliz gogoratu baitu:

Ezagutuko duzue Egia, eta Egiak askatuko
 zaituzte (Jn, VIII, 32) (OL, 132).

Liburuan adierazten den Egiak badu zerikusirik errefracetan bildu den esperientzia-egiarekin; Tuareg-en errefracuek gogorarazten dutenez. Esaldi aforistikoen joera eta errefracu zaletasuna nonahi agertuko zaio Arzeri liburuan:

beti da malkartsua
 zuzeneko bidea,
 baina bidean gorago
 eta dena duzu argiago. (OL,143).

Kristautasunaren aszetismoz beterik dagoen esaldi horrek adierazi duenez.

Aipatzen ari garen poeman bada beste zertzelada txikia: azken hitza, "zutik!" nimiño hori. Ez luke garrantzi handirik, Arzek ez balu bere goitizena aldatu, eta berria "zut" horren inguruan eraiki. Lehen liburuetan, Joxe Anton Arzek "Hartzabal" ezizenez sinatzen zuen, oraingoan "Hartzabal" "harzut" bihurtu da. Eta aldaketak ez du soilik adierazi

estetika aldaketa gertatu dela, izaera eta kontzeptu aldaketa liburuan agerian utzi direla ere adierazi du. Zabaltzen ari zena, aszesis, igoeraren joeran agertu da orain. Zutikako joerak argitasunean, igoeran, egian sinestea dakar. Eta joera inoiz mistiko deitua, niretzat metafisikoa dena, beti ere zentzu erlijiosoarekin lot dezakeguna, indartu du poetak.

Hizkera poetikoaren mamitze prozesuan Arzek muinera jotzen lagundu dioten prozedurak aukeratu ditu. Edonork ikusten du hemen paradoxa joko, aurkakoeekin jolasteko gogo.

Baina horra heldu aurretik, lehentasun handiarekin, beste prozedura estilistikoa aipatu beharko litzateke: hiztegiaren hezurdura. Baliapide poetikoak estuak dira, mamira ekarriak daude, hezur-mamiturik agertu ohi dira, gutti batzuk besterik ez dira hitzak:

Uste duzun baino
askoz ttikiagoa zara,
gizontzo!

Dakizun baino
askoz haundiago zaitezke
gizontxo! (OL, 68)

Esaldi eraketa bakarra dugu alde bietan; hitz eta oposaketa gutxi batzuk besterik ez dira: uste/jakin; ttiki/haundi, izan, gizona. Oso elementu gutxi. Elementu gutxi horien artean, eta esaldiaren barnean, ordea, hari ugari poemaren oreka sortzen. Lehen haria kontrajarpenek eta paralelismoek osatu dutena liteke: uste/jakin, ta aipaturikoak eraketa bera eta paraleloa duten esaldi biren artean. Arzeren idazkera moldea ez da, baina, oximoron bakarrean geratzen; detalle txikietan agertu ohi du bere joera. Aditzen oposaketan adibidez, eta horretan maisu ez ezik, nagusia da aditzaren barnean arakatu eta aditzari berez duen balio morfologikoaren ginetik balio semantikoa eman eta aberasten. Ikusiko denez ez nabil uste/jakin aditzen arteko oposaketaz, “zara” eta “zaitezke” aditzen artean sortu den oposaketa nagusiaz baino. Hitzaren zertzelada da era berean eta bere idazkera liluraz irakurtzekoa: “-tzo” eta “-txo”ren artean egin duen joko berezia.

Hizkera joera kontzeptista horrek eman dio Arzeren poesiari duen baliorik liluragarriena. Hizkeraz agerturiko hausnarketaren aztarnak ugariak dira; baina edertasuna eman diote ia-ia “arte povera”ren elementu gutxi bezain nabarmenek, egindako poesia nagusi honi.

Egia da batuketa prozedura horren ondorioz poemak kontrajarpenetan gauzatzen direla paradoxan, oximoronean. Baina era berean aforismo kutsuz bete dira:

goserik,
gizon dena,
ilhunbeak argitzen dituen
egiaren (OL, 69)

edo errefrauen sunda duten esaldiez:

Beranduegi
ibili ohi denari,

nola goizegi dabilenari,
 biei berdin
 garaiz heltzen
 azken ordua (OL, 178)

Gauero itzaltzen da
 gizakumea
 goizero bizten
 eta bien bitartean
 amets du egiten (OL. 178)

Bestalde, modernitatearen ukazio moralala egin da. Kontsumismoak droga dakar

Heldu garenik, ordea, ez diote;
 isiltzen dute, zergaitik ote?
 "opioa dela gaur herrien "erlijioa" (OL, 52)

eta putazaharturik jada jokabidez
 nahiz eta ezin ahalez,
 bai gogoz....! (OL, 53)

eta, ondorioz, giza izaeraren galera zuzena. Alde hori ongi marraztu du "Galipotakumeak (Born in Europe, made in USA)" deituriko poeman:

rocka-cola zainetan
 plastikozko aurpegi zurbila zuen
 -grisak begiak,
 grisa autoa,
 gris metalikoa-
 metalezko mutikoa,
 mutiko automatikoa! (OL, 54).

Joera moralaren barruan aipatu behariko genuke askatasun sexualari jarri zaion kondena. Izpi guztiok joera mekanoegia, pentsakizun xinplegia (inoiz ageri da guztiaren kausa jostailu asko izatea dela, nahiz eta jostailuen gaia hezkuntzaren gaiarekin lotua agertzen den), agerbide manikeistak azaldu dituzte. Izan ere, ondoren ikusiko dugunez, bikoiztasunak berebiziko tokia du poetika honetan.

Behin honela idatzi zuen Felix Ibargutxik:

Arzeren aurreko liburuekin gertatu zena gerta liteke oraingoan ere: poesi modu hau jende askoren ulermenera ailegatzea, olerki-irakurle ez direnen bihotzetan ere itsastea. Haren gauzak esateko modua ez bait da prosatik gehiegi urrutiratzen, ezta irudi, metafora eta dauden sinboloak ere herri xehearen irudimenetatik askoz harutzago joaten (Ibargutxi, 1987).

Herri erretorika horrek alde bi ditu: batetik, Joan Mari Lekuonak azaldu zuen joera pikareskoa aurki liteke, nolabait adierazlearen mailan koka dezakeguna, eta hizkeraren alde zakar batekin jolastu duena; metafora arruntak (ostoaren metafora, adibidez) erabili ditu, liburuan

zehir ondu den idazkera aldean gehiegizko aldaketak, eta gora-beherak sortuz, eta irakurlearengan nolabaiteko egonezina agertuz. Beste zenbaitetan herri-estetikak gora egin du: errefrau gisako moldeetan, edo metafora berrituetan. Hona hemen hiru joera nagusien adibideak:

Ez uste esklabotik tiranora
halako aldea dagoenik,
ez behintzat
erho astotik asto erhora
baino haundiagorik (OL,66)
Dakienak ba daki,
ez dakienak baleki (OL, 44)
Itzalik gabeko zuhaitza
kerik gabeko sua bezala da,
argi hutsa (OL,77)

Herri joera beste hainbat espresabidetan agertzen du Arzek: Esanmoldeetan, aho-hizkerara egindako hurbilketan, pasadixoen hitzez-hitzezko kontaketa (OL,88).

Puntu baten lotzen dira, ordea, mundu modernoaren ukazioa eta herri joera: orden natural, giza-izaerari atxikia dagoen mundu batean. Eta giza-izaera hori primitibismoan agertu ohi da, herri joeratan.

Ahozkotasuna, baina, bikoizketaren zale da, manikeismoa maite du. Ezin izango dugu ukatu manikeismoa nagusia dela liburuan osaturiko kontrajarpen bortitzetan. Baina ez genioke justiziarik egingo liburuari beste espresabide bat, eta bere esanahia kontutan hartu gabe. Liburuan askotan erabili izan da erritmo musikala gogora ekartzen duen espresabidea. Pasartean zatian oinarriturik, esaldi baten aipamen bat eman du poetak, ondorengoko orrialdeetan pasartea osatzen duelarik, esaldia apurka-apurka ehuntzen duelarik, gaia astiro-astiro argitzen duelarik. Tuareg-ak basamortuan aipatzen duen errefrau, adibidez, hiru alditan osatzen du. Lehenez agertzen denean, bertso bakarra besterik ez da:

Edan ura gizon egiteko (OL.103).

Urrengo orrialdeetan 119. eta 157.ean osatzen delarik pentsakizuna. Gaia agertu, eta, ondoren, berriro hartu erritmoa argi eta, gero, ilundu, horrela dabilkigu poeta.

Guzti horrek liburuaren eraketa agertuko luke. Arzek gogoratu duenez, bikoiztasun batekin hasten da testua, batasuna (androgenoa) bikoizten den unetik aurrera egiten du pentsakizunak. Hiru alor nagusi ditu liburuak: Androgenoa, batasun uea:

biok batera (OL, 33)

agertu den uea. Bikoiztasuna, "Jaiotz-heriotzen arteko bizian" agertuko litzateke, gizakiak bere bikoiztasuna agertzen duen uean:

Begi onez behar diok heriotzari begiratu,
lagunduko hau bizitzaz ez mozkortzen,
lagunduko, ez azperten (OL,81).

Bizitzaren eta heriotzaren artean, gizakiak maitasuna bilatuko du idealera itzultzeko.

Hiru gai-guneok alde metafisiko batean kokatu ditu idazleak, baina haien inguruan, liburuak jarraitu du beste gairen aztarnarik ere. Aiduru dago liburu hasten denean, apal-apal, barnetik entzungo balitu pentsakizunaren oihartzunak. Jakinduriaren eta Hitzaren guneak inguratuko ditu gero. Ondoren kritika sozialera jaitsi eta ametsaz galdetzeko. Heriotza eta bizitzaren ondoren, uraren gai nagusia agertuko du. Berrero, ageriko gai batek hornituko du bere luma: euskara, haren galera, arrotzen agerpena. Izadiak markatuko dio izaera naturalerantzako bidea. Eta Isiltasunaren eremua igaro ondoren, Maitasunaren zikloak erakutsiko dio giza-izaera.

Hitzaren eta isiltasunaren artean:

Hitzaren bidez sortu du Jainkoak
 dakusagun mundua,
 eta isiltasunaren bidez
 ez dakusagun mundua (OL,40)

ikusten den mundutik ikusten ez dena igaro da Arze, maitasunean mundu hartara heltzeko ate eta bide aurkitu dituelarik:

zaizkit ate,
 maite
 nakizun bide. (OL,212).

Arzeren poema liburuak

- (1969) **Isturitzetik Tolosan barru**. Egile editore. Usurbil.
 (1973) **laino guzien azpitik...** Egile editore. Usurbil.
 (1973) **eta sasi guztien gainetik**. Egile editore. Usurbil.
 (1979) **Bide bazterrean hi eta ni kantari**. Egile editore. Usurbil.
 (1987) **Ortzi lorez, lurra izarrez**. Elkar. Donostia.

Poetikak

- (1991) "Nik uste...". **Enseiucarrean**, 6, 15-22.

Arzeren poesairi buruzko artikulua.

- BELOKI, J.R. (1975): "JAA: Holandatik Usurbilen barru". **Zeruko Argia**. 1975-XI-9, 16.
 BORDA, I.: (1985): "Gizon handi bat da Artze, eta mundu txiki bat Joxean". **Argia**. 1059, 1985-VI-12.
 ELKARLANEAN (1996): **Rikardo Arregi. Gizona eta garaia**. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Andoain.
 ETXEZAHARRETA, L. (1994): "Joxean Artzeren barne bideak". **Egunkaria**. 1994-X-9.
 GARTZIA, J.R. (1991): "Min bizi bizia". **Egunkaria**, 1991-II-10.
 IBARGUTXI, F. (1987): "Kezkak eta kezkak orrialdeetan". **Zabalik**, 1987-IX-9.
 INSULA (1997): **Ver la poesía. La imagen gráfica del verso**. 603-604.
 KORTADI, E. (1974): "Euskal poesia esperimentalá". **Zeruko Argia**. 1974-III-3.
 KORTAZAR, J.: (1987): "Síntesis". **Diario 16**. 1987-XII.
 -----: (1997): "La poesía visual de Joxe Anton Arze". **Insula**. 603-604. 46-48.
 KINTANA, X. (1976): "Arze anaiak". **Zeruko Argia**. 1976-II-22, 28-9.
 LEKUONA, J.M. (1970): "Geigarri bezala". **Zeruko Argia**, 402.
 MENDIZABAL, M. (1987): "Laino eta sasi guztien tartetik". **Argia**, 1167, 1987-X-4. 5.
 MOLLARRI, I. (1982): "Joxanton Artzerekin hitzezko mundu batetik". **Argia**. 951, 1982-XI-7, 26-30.
 PERURENA, P. (1988): "Artzeren hitza arrazoia da". **Literatur gazeta**. 9.
 SAN MARTIN, J.: "[Sarrera]" in **Isturitzetik**
 ZUBIZARRETA, I. (1985): "Joxanton Arze. Hitez eta hotsez". **Zeruko Argia**. 1978-IV-23. 38-9.

BIBLIOGRAFIA

Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak luzaturiko HA 108/95 laguntzari esker burutu da.